



23-28
UZTAILA
/ JULIO

DONOSTIA /
SAN SEBASTIÁN

Garrantzizko informazioa Chillida Lekurako

Sarbidea eta aparkalekua Txikijazz:

Kontzerturako sarrerek museorako, erakusketetarako, piknik gunerako eta tailerrerako sarbidea ematen dute. Museoak 10:00etan irekitzen ditu ateak. Tailerra 11:00etan hasiko da eta kontzertua 12:30ean.

Ibilgailu pribatuan iristen bazara, Galarretako aparkalekuan utzi beharko duzu. Autobus bat egongo da dohainik Galarretatik museora joateko (10:30etik 12:30era) eta Galarretara itzultzeko (14:00etatik 15:00etara).

Sarbidea eta aparkalekua 19:30ko kontzertuetarako (Iñaki Salvador, Federica Michisanti Quartet eta MAC Saxophone Quartet-Rosario Giuliani):

Kontzerturako sarrerak museorako sarbide-eskubidea ematen du. Gutxienez 40 minutu lehenago iristea gomendatzen dizugu. Kontzertua 19:30etan hasiko da.

Ibilgailu pribatuan bazatoz, Galarretako aparkalekuan utzi beharko duzu. Doako autobus bat egongo da Galarretatik museora 18:30etatik 19:30etara, eta ekitadia eta gero Galarretara 22:00ak arte itzuliko da.

Arropa, oinetakoak eta beste gomendio batzuk:

Ekitaldian zehar (11:00etatik 14:00etara - Txikijazz) tenperaturak gora egin dezakeela gogorarazten dizugu. Beraz, txanoa, eguzkitako krema eta oinetako eroak ekartzea gomendatzen dugu, museoko zelaietatik ibiltzeko.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus

59 DONOSTIAKO JAZZALDIA

23-28
UZTAILA
/ JULIO

DONOSTIA /
SAN SEBASTIÁN

Bestetik, manta edo esterilla bat ekartzea gomendatzen dizugu, kontzertuaz erosotasun osoz goza dezazun; hamaka kopuru mugatu bat ere egongo da bertaratzen direnentzat, iritsiera ordenaren arabera.

Laguntza-txakurrak:

Gogo onez eta kosturik gabe onartzen dira laguntza-txakurrak (gida-txakurrak, seinalekoak, alerta medikokoak, autismoa duten pertsonenak, mugikortasun murriztua dutenei laguntzekoak, etab.), Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legeari jarraiki. Ez dira onartuko gainerako txakurrak, ezta bestelako animalia batzuk ere.

*ADI: Txikijazzeko kontzerturako sarrerak ez du bermatzen tailerrean parte hartzea. Maushausen tailerra interesatzen bazaizu, museora sartzean, eskatu Maushaus sarbide-txartela (edukiera mugatua iritsiera ordenaren arabera).

Edozein zalantza edo kontsulta baldin baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:

reservas@museochillidaleku.com / infojazz@donostia.eus

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus